



AMIANTOA

GENOZIDIOAK
ETXEKO ATEA JO DU

Ahaztuen garrasia, egia eta justizia eske

Itxi ditzakegu begiak eta esan egungo bizimoduagatik ordaindu beharreko bidesaria idirela minbizi kopuru alarmagarriak. Baina egiak jarraituko du lurperatutako hilotzen hezurretaraino sartuta: gaixotasun bakoitzak badu jatorri bat eta erantzule bat.

Amiantoak milioika lagun hilko ditu datozen urteetan, aurrez jakingo dugun historiako lehen genozidioa izango da seguruenik. Saihestu zitekeen baina ez zen egin, fibrozementuaren lobbyak nahita ezkutatu zuen haren arriskua eta 60ko hamarkadatik XXI. mendera arte masiboki arnastu eta jan dute langileek nahiz ingurukoek. 40 urteren ondoren, ate joka dugu heriotza.

Biktimen elkartean lanari esker, erakunde publikoek gero eta zailago dute arazoaz paso egitea –berrikitan konpentsazio funtsa sortzea adostu dute Espainiako Kongresuan–. Baina amiantoak kaltetutakoek oraindik bidegurutze luzea egin behar dute epaiketetan barrena edo administrazioaren aitortza lortzeko, kasu askotan hil ostean gertatzen da hori.

Euskal Herrian eta Mendebaldeko toki gehienetan amiantoa erabiltzea debekatuta egonagatik ere –besterik da zer min eragingo duten oraindik eraikin, eskola eta bazterretan pilatutako milaka tonek–, munduko populazioaren %70 duten herrialdeetan erruz ari dira mineral hilgarria produzitzen eta manipulatzeko. LARRUN honen amaieran Maria Roselliren *The Asbestos lie* (Asbestoaren gezurra) liburuko pasarte bat dakarkigu horri buruz: “Zoritzarrez ez da kuriositate historiko bat”, dio kazetariak.

■ **Egilea:** Urko Apaolaza Avila

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.592. zenbakiarekin banatua, 2018ko martxoaren 25ean)



Beasaingo CAFen amiantoagatik hildakoen oroigarrian omenaldia 2017ko urrian.

Egunkariak apenas utzi diote tarterik teletipoari. Emakumea 22 urtez aritu zen lanean Erretereria-ko isolagailuen fabrika batean, autoen baterientzako estalkiekin egiten zuen lan; baina ez ziren plastiko hutsak, amianto zuntzez egindako artefaktu arriskutsuak baizik, eta berak egunero-egunero lixatzen zuen estalki bat bestearen atzetik, printzak kentzen zituen nola eskuarekin edo putz eginez. Lana utzi eta hiru hamarkada geroago sortu zitzaion asbestosia, eta orain, enpresa hura erosi zuen multinazionalak laneko gaixotasunagatik jasotzen duen prestazioaren %30 ordaindu beharko dio EAEko Auzitegi Nagusiaren epai baten aginduz. Baina epaia ez da irmoa, eta seguruenik emakumeak berriz ere egin beharko du auzitegirako bidea birrikak lehertzeaz, azken bost urteetan egin izan duen bezala.

Maiz iristen zaizkigu halako berriak, baita larriagoak ere. Lerro hauek idazten ari garela, Twitterreko denbora lerroan sartu zaigu mezu labur bat: amiantoagatik aurtengo seigarren laguna hil da, Tafallako Victorio Luzuriaga fundizioko – egun Fagor Ederlan kooperatibarena– langile artaxoarra, laneko gaixotasuna aitortzeke zuen. Irakurleak aldizkaria jasotzen duenerako zerrenda luzeagoa izango da, tantaka ari baita bustitzen epidemia honekin Euskal Herria. Soilik Hegoaldeko lau lurraldeetan 1993tik hona gutxienez 1.494 pertsona hil dira estatistika ofizialen arabera.

Mesotelioma edo pleurako minbizia zuzenean dago erlazonaturik mineral horren erabilerarekin, asbestosia eta biriketako minbizia ere sortzen

du, eta azkenaldiko ikerketek diote laringeko, hes-tegorriko eta agian baita obarioetako minbizia kasuak ere lotuta egon daitezkeela amiantoari. Hain arriskutsua izanik, zergatik erabili izan da?

Amiantoa 3.000 produktu baino gehiagotan aurki daiteke, zenbait kasutan zuzenean eta gehienetan zementuarekin nahastuta. Etxe batean 25 tokitan egon daitekeela uste da: sukaldetan, hodietan, lorontzietan, berogailu sisteman, termoetan eta hortzeko pasta urratzaileetan ere bai. Jadanik debekatuta dagoen arren, hor jarraitzen du, ez da atzoko arazoa.

Bere madarikazioa, erresistentziarako duen ezau-garri harrigarria da: kimikoki edo beroarekin desegitea oso zaila da eta malgutasun handia du. Amiantoak, greziarren adieran “iraungiezin” esan nahi du, eta mineral hori izendatzeko erabiltzen den beste hitza, asbestoa, “erregaitza” da jatorrizko latinean. Zuntz kristalizatu horizontal nimiñoak ez dira ikusten, ez usaintzen, ez sentitzen; hain dira txikiak, ezen airean esekita gertzen dira edo urak harrapatuta, eta horrela errazago sartzen zaizkigu gorputzean. Denboraren poderioz gainera, birrindu egiten da –ez desagertu– eta are gehiago zabaldu.

Isolagailu bezala material guztiz eraginkorra da, horregatik automozioan –garraio modu guztietan–, eraikinetan eta Euskal Herriko industria eta tailerretan milaka langileren eskuetatik pasa zen 70, 80 eta 90eko hamarkadetan. Hauts haietatik gaurko hildakoak, eritasuna hogeita hamar edo berrogei urteren buruan sortzen baita.

“Amiantoa heriotzaren sinonimo da –esan digu irmo Juanjo Basterrak–, isiltasun sinonimo ere bada, besteen bizitzaren kontura negozio egitea, boterea duenaren intrantsigentzia... baina batez ere borroka da”. Gaiaz Euskal Herrian gehientsuen ikertu duen kazetariak *Cuatro Lunas* (Pepe Rei Kultur Elkartea, 2016) liburuan ahotsa jarri die amiantoaren biktimei: “Urtetan barrutik urratzen eta desegiten ari diren horiek, izuak eta sufri-

menduak atea jo badie ere, aurpegia eman dute”. Esan liteke oroimenaren alderantzizko kontaktuzun bat dela amiantoaren biktimena: lehenengo ahaztura eta azkenean drama. Azken batean Paco Puche adituak bere azkeneko liburuan dioen moduan “amiantoaren historiaren bide bazterretako areketan” geratu dira hauek ere.

GERRA BOTINA, ESKLABOTZA ETA KAPITALISMOA

Puchek Amianto. *Una epidemia oculta e impune* (Catarata, 2017) argitalpenean laburbildu ditu bere ezagutza guztiak –erreportaje honen oinarritzko iturrietako bat da–, eta besteak beste amiantoaren industriaren jatorri zapaltzailea kapitalismoarekin lotu du. 1920an Schmidheiny familia suitzarrak fibrozementuaren patentea zuen enpresa erosi eta Eternit izena jarri zion –amiantoaren izaera eternala gogoratu–. Hor hasi zen dena.

Amiantoaren industria herrialde ugaritya zabaldu zuten eta Eternit enpresari loturiko beste familia batzuekin batera oligopolio handi bat sortu zuten negozio horren inguruan. Munduko asbesto enpresa handienekin SAIAC kartela egin zuten, tartean ziren Turner & Newall britainiarra, Johns Manville iparramerikarra eta baita Roviralta enpresa espainola ere, azkeneko hau Uralita izenarekin March familiaren eskuetara igaroko zen gero. Kapital pilaketa itzela izan zen, zenbait momentutan %20ko etekinak ukan zituzten enpresa horiek.

Baina diru hori guztia langileen zapalkuntzan oinarriturik zegoen, diktadura eta estatu totalitarioekin harremanetan. 1992an Stephan Schmidheinyk Hegoafrikako lantegi eta mehatzeak itxi zituen. Zergatik? Horixe galdetu zion Maria Roselli kazetariak sindikalista hegoafrikar bati: “Apartheidaren amaierarekin ezin zuelako beltzak esplotatzen segi”. Esklabotza kapitalismo modernoaren substratuetako bat izan zitekeela



Gironako 1932ko Industria, Merkataritza eta Nekazaritzako erakusketa ferian Uralita enpresaren standa. Josep Maria Roviraltak marka erregistratu eta urte batzuetara, gerra ondoren, March familiak hedatu zuen produktua.

aspaldi ikasi zuten Kubako kanabera sailetan katalan zein euskaldun negozio gizonek.

Antzeko egoera probestu zuen Juan March Ordinas bankariak gerraosteko Espainia autarki-koan. 1936ko golpea finantzatu ondoren, asbestoaren inportazioaren monopolioa eskuratu zuen eta 1943an Cerdanyolako fibrozementu fabrika handiarekin egin zen, Uralita –Errusiako Uraletako asbestoarekin eginda baitzegoen– eza-guna produzitzeko. Francok “nazioaren defentsaren intereserako mineral” izendatu zuen amiantoa eta Andaluziako Ronda mendizerran *urre zuria* erauzteko negozioa jarri zuten martxan. Mijas, Ojén eta antzeko herrixketako ehunka nekazari txiro “kontratatu” zituzten destajuan aritzeko; astoz garraiatzen zuten hauts kantzerijenoa inongo babesik gabe.

Eta Euskal Herrian zer? Amiantoa produzitzeko negozio handirik ez zen egon, baina toki askotan

oso presente zegoen Basterraren esanetan: “Egin kontu Espainiako Estatuan 800 enpresak inportatu zutela eta Hego Euskal Herrian 85 inguru izan ziren. Puntu beltza gara. Amiantoa gehien labeetan, ontzigintzan, eta trenetako eta autoetako balaztetan erabiltzen zen, hemengo sektore garrantzitsuenak”. Espainiako Lan Arriskuen Prebentziorako Fundazioak 2002an egindako ikerketa batean ikus dezakegu euskal industriako sinadura garrantzitsu guztiek inportatu zutela amiantoa: Patricio Echeverria, Altos Hornos de Vizcaya, CAF, Papelera Española, Michelin, Laminaciones Lesaca... Denek zuten loturarik erregimen frankistarekin, zenbaitek altxamenduan lagundu eta “gerra botina” deitu izan denean parte hartu zuten gainera.

Ordurako amiantoaren arriskuez ohartarazten zuten epidemiologia ikerketa franko zegoen egina. Lehen abisu serioa 1898an eman zuen Lucy Deane Streatfieldek. Erresuma Batuan

“ Juanjo Bastera, kazetaria

Amiantoa heriotz sinonimo da, isiltasun sinonimo, besteen bizitzaren kontura negoziua egitea da, boterea duenaren intrantsigentzia... baina batez ere, amiantoa borroka da”

laneko inspektore aritu zen lehen emakumeetako bat izan zen eta ehungintzako lantegi batean ikusi zuen amiantoa edozein kopurutan zela kaltegarria. 1930ean asbestosia sortzen zuela erabat frogatu zen, 1955ean biriketako minbizia eta 1960an mesotelioma.

Amiantoren industriako arduradunek bazekiten hori guztia, eta nahita ezkutatu zuten. Hain justu, mundu mailan sortu zen asbestoaren lehen kartelaren helburuetako bat zen informazio tekniko eta medikoa kontrolatzea, berrikitan desklasifikatutako barne dokumentu baten arabera. Gerora Asbestoaren Nazioarteko Elkarte (AIA) sortu zutenean ere helburu bera zuen: konferentziak (Londres, 1971) eta ikastaroak antolatu zituzten zuzendaritzako kideen artean, amiantoaren arriskuaz ugaritzen ari ziren ikerketen kontra modu kolektiboan erantzuteko estrategiarekin. Desinformazioa beti izan da gerra zikinaren arma efikaza.

Berrogei urte geroago, enpresek amnistia antzeko bat eskatzen dute ezjakintasuna argudiatuz: “Biktimek isiltasuna jasan dute mutuak eta gobernuak ez dituztelako ondoan izan –dio Basterak–. Askotan enpresariak saiatzen dira amiantoarekin ez ditzatela erlazioatu, jakin baitakite amiantoarekin lan egin izana gaixotasunaren ‘loterian’ sartzea dela”. Gaur egungo jakintzatik iragana juzgatzea egozten diete biktimen elkarte eta militanteei. Baina argudio hori hankaz gora jarri zuen Espainiako Auzitegi Goreneko sententzia batek 2012an: enpresak langileen

segurtasunaren zordun dira, garaian garaiko araudiek exijitzen dutenaren gainetik. Ezin zuten beste aldera begiratu.

10 MILIOI HILDAKO

Kontra-informaziorako propagandak eta zentsurak kimatutako kontakizuna da amiantoarena. Agian horrela uler liteke Espainiako Estatuan amiantoagatik diagnostikatutako erien %97 aitortza eta babesik gabe geratzea. Pucherren esanetan “nukleo gogor ikusezin hori isiltasun konspirazioaren parte da”, Europako beste herrialde batzuekin –Frantziako Estaturako kasu– zerikusi gutxi duena.


Ikerlariak algoritmo berezi bat sortu du amiantoak zenbat jende hilko duen zenbatzeko. Horretarako kontuan izan ditu asbesto kontsumoaren eta minbiziaren arteko erlazioa –mesotelioma bat 130 tonako–, mineralaren 40 urteko bizitza baliagarria eta gaixotasuna agertzen den 40 urteko epea. Soilik hamarkada honetan 32.692 pertsona hilko dira urtero munduan mesoteliomaz, eta literatura zientifikoan oinarrituta biderkatu beharreko asbestosi eta biriketako minbizi kasuak kontuan hartuta, kalkulatu du XX. mendean amiantoarekin kontaktuan izan ziren hamar milioi lagun hilko direla. Munduko Osasun Erakundea ez dabil urrun zifra horretatik: urtero 107.000 lagun hilko ditu amiantoak.

Asviamie amiantoaren biktimen euskal elkar-teak dio Hego Euskal Herrian gutxienez 25.000 langile izan direla iraganean kontaktuan gai kutsakorrarekin eta horien herena “behar baino lehen” hilko dela. Eusko Legebiltzarrak 2015ean konpentsazio funtsaren ponentziarako agindutako txosten baten arabera, berriz, 2019 eta 2023 artean urtero 507 pleurako minbizi eta 350 mesotelioma egon daitezke asbestoaren erruz EAEn. LABek amiantoaren inguruan kaleratutako gida batean irakur daiteke Euskal Herrian 6.000 eta 10.000 lagun artean hil daitez-

Buzoa garbitzen zuten emakumeak, estatistiketako ikusezinak

Eusko Legebiltzarrean onartutako ponentzia baten arabera, amiantoarekin gaixotutako pertsonen %18 hauts kantzerijenoa ingurumenean zegoelako kutsatu da, *La plaza de la música* dokumentalgi-learen amaren kasua da: Errenterriako Paisa lantegiak inguruko etxeetara isuritako amiantoak hil zuen (irudian fotograma bat).

Beste %11 langileen senideak dira, batez ere haien buzoak garbitzen zituzten emakumeak. 2015ean Gipuzkoako Lurralde



Auzitegiak sententzia historikoa eman zuen: Arcelorren lan egiten zuen Bergarako langile baten emazteari amiantoz kutsatutako buzoa garbitzeagatik sortu zitzaion minbizia; emakumea 2011n hil zen eta enpresak haren

seme-alabak indemnitzatu behar zituela zioen epaiak.

Arcelorrek helegitea jarri zuen ordea, eta urtebete geroago auzitegi berak baliogabe utzi zuen sententzia. Ustez, langileek buzoak lantegian bertan garbitzen zituzten haizearekin eta epaitegiaren aburuz ez zegoen “motiborik” hildakoaren senarrak arropak etxera hautsez zikinak eramateko “bere emazteak astindu zitzaion”. Asviamiek iraingarritzat jo zuen epaileen ondorioa.

keela mineralak gaixotuta, “zenbait neurketen arabera”.

Zer da hori genozidioa ez bada? Sufrimendu eta heriotza sistematikoa eraginaraztea ez ote da hori? Genozidioak intentzio eta estrategia bat du atzean, 1948an Nazio Batuen Erakundeak onartutako Konbentzioaren arabera. Eta amiantoaren industriaren atzean horrelako zerbait egon zela garbi ikusi zen 2014an Stephan Schmidheiny eta Eterniten kontra Turinen izandako epaiketean.

Epaiketa garrantzitsu hartan jardun zuen Sara Panelli fiskalak eta bere ustez Eterniteko buruek “nahita” ezkutatu zuten amiantoari buruz zekite-na: “Enpresaren goi zuzendaritzak erabateko axolagabetasuna izan zuen langileen segurtasunarekiko, amiantoak sor zitzaizkeen kalteak jakinik ere”. Hain zen begi-bistakoa jokabide hori, epaiketaren hirugarren egunean epaile batek Eterniten estrategia konparatu zuela naziek 1943an judutarrak Madagadaskarrera deportatzeko planarekin. Baina Turinen egun horietan botereak ederki erakutsi zuen noraino luzatzen duen itzala: enpresari milioiduna zigorrik gabe geratu zen –berégain zuen 18 urteko kartzela zigorra bertan

behera utzita— delituak preskribitu egin omen zuelako. “Hildakoek ez dute preskribitzen!”, “Hau lotsagarria da!” entzun zen ozen kasazio-auzitegiko salan biktimak eserita zeuden aldetik.

Nolanahi ere epaiak bidea ematen du Eterniteko nagusia berriz ere auzibidean sartzeko, ez baitu esaten errugabea denik. 2015ean beste salaketa bat jarri zuten haren kontra 1989 eta 2014 artean hildako –eta preskribitu ez duten– 258 biktimen senideek. Zenbat jenderen heriotzaren erantzule ote dira gizonok? Puche zifrak esatera ausartu da bere liburuan: Eterniten jabeek 360.000 eta 450.000 hilotz izan ditzakete euren bizkar –Uralitaren jabeek berriz 23.785 eta 37.630 artean–. “Lasai asko epaitu ahal izango lirakeke Hagako Nazioarteko Zigor Auzitegian”, dio ikerlariak.

Beste askok bezala, Schmidheinyk filantropikismoaren bidez estali nahi izan du bere iragana. 1994an AVINA sortu zuen, Hego Amerikan “garapen iraunkorra sustatzeko” fundazioa, eta hortik urte batzuetara 1.000 milioi dolarreko balioa zuten bere enpresen zati bat sozietate baten esku utzi zuen, fundazioa diruz hornitzeko. Ondo irakurri duzu: kapitalismoa jendarte-



2017ko martxoan amiantoaren biktimentzako konpentsazio funtsa sortzeko eskaria erregistratu zuten Eusko Legebiltzarreko ordezkariak Espainiako Kongresuan.

ren zerbitzura. Schmidheinyk Ashoka moduko proiektu erraldoiak babestu ditu –ekintzailletza soziala eta turbokapitalismoa batzen duen negozio ildo berria–, baita jesuiten unibertsitateak ere. Suitzarrak harreman zuzena izan du, adibidez, aita Luis Ugalde Olalde teologo bergararrarekin. Venezuelako Andrés Bello Unibertsitateko errektore ohia ezaguna da gurean eta Iñigo Urkullu lehendakariak berak hartu izan du Aju-ria-Enean; baina ez da hain ezaguna euskal jesuitak bultzatutako Fe y Alegría misio pedagogikoa amiantoaren industriaren irabazietan oinarritu izan dela Schmidheinyrekin zuen adiskidetasuna baliatuz.

BIKTIMEN MINA

Turingo kasazio-auzitegia lepo betetzen zuten biktimen artetik asko Casale Monferratokoak

ziren. Italiako Piamonteko herri hartan izan zuen Eternitek 1986. urtera arte bere lantegi nagusietako bat eta dozenaka urtez haur zein helduk irentsi zuten trenez garraiatu eta kamioiek iraultakoan herriaren erdigunera zabaldutako “laino zuri eta arinak, laster oso familiarra bihurtu zena”, *La lana della salamandra* liburuan Giampiero Rossi kazetariak dioen moduan; fabrikako hondakinak kaleak eta errepideak betetzeko ere erabiltzen zituzten, agintarien politika arduragabearen ondorioz. 34.000 biztanleko herri hartan 2.000 baino gehiago hil dira amiantoaren ondorioz, ez alferrik deitzen diote “minaren munduko hiriburua”.

Liburuko protagonistetako bat da Romana Blasoti, egun amiantoaren kontrako sinbolo den ia 90 urteko emakumea. Eterniten lan egiten zuen senarra 61 urterekin hil zen mesotelioma baten ondorioz; sei urte geroago ahizpa hil zen, hauts

hilgarria euren arropatan eramaten zutelako etxera haren senarrak eta semeak; gero lantegi ondoan bizi zen lehengusu bat; eta azkenik alaba ere hil zitzaion Romanari, amiantoarekin inoiz lanik egin ez zuen arren. Azken heriotza horrek haserrea piztu zuen herritarren artean: “Romana, minak akituta zegoen eta ez zuen negar askorik egin –dio Rossik liburuan–. Oraindik halako larritasuna sentitzen du gogoratzean. Baina orduan benetan inporta zuen bakarra zen sarraskiak herriko beste hainbat familiari sorturiko sufrimenduagatik justizia eskatzea”.

Baina biktimen eta haien senideen minaz jakiteko ez da Italiaraino joan beharrik. Euskal Herrian edozein herritan aurki ditzakegu testigantza gogorak, Juanjo Basterrak *Cuatro Lunas* liburuan jasotzen dituenak bezalakoak. Begoña Vila da horietako bat, Marcos Albitre bere senarrak Renfe eta Wagons Lits-entzat egin zuen lan 25 urtez eta trenen kotxeetan barra-barra zegoen amiantoa arnastuz sortu zitzaion pleurako minbizia. Hil aurreko azkeneko denboretan 400 morfina anpoila behar izaten zituen lau egunetarako, besoan zeraman bonba batekin ezartzen zioten hodi baten bidez: “Malkoak masailetan behera erortzen zitzaizkion minaren minnez. Ohean ezin zuen lorik egin, salan egiten zuen”, dio Vilak liburuan.

Albitre 46 urterekin hil zen 2006an eta heriotzaren ondoren “Begoñak inpotentzia handiz bizi izan zuen enpresaren mesprezua”, azaldu digu Basterrak. Hala ere, borroka askoren ostean lortu zuen Bartzelonako ospitale batek frogatzea senarra mesoteliomaz hil zela eta auzitegietan bost urte eman ondoren aldeko epaia izan zuen, CCOOko Jesus Uzkudunen laguntzaz (ikus ondorengo elkarrizketa). “Auziak luzeak dira, egia da –aitortu du kazetariak–. Hasi eta amaitu arte urte asko igarotzen dira eta kaltetutako askok ez dute amaiera ikusten”. Basterrak Asviameiko Nuria Busto eta Blanca Ruiz de Eguino abokatuen bulegoko datuak darabiltza: elkarrekin tramitatuta 113 epai irmo egon dira orain arte,

80 aldekoak, 17 atzera botatakoak eta 16 kasutan akordiora iritsi dira.

HARLAUZEKIN ESTALITAKO HISTORIA ILUNAK

Amiantoaren biktimentzako konpentsazio funtsaren helburuetako bat da epaitegietako sufrikario hori ez igaro behar izatea. Eusko Legebiltzarreko ordezkariak Espainiako Kongresuan eskatuta, funtsa eratzea onartu zen 2017an baina eszeptizismorik ez da falta: “Ikusiko dugu zer pasatzen den, azarotik hona helegiteen aurkezpena atzeratzen ari baitira”, dio Basterrak. Funts horrek gutxieneko bat bermatuko lieke enpresa zehatzen kontra jo ezin duten biktimei, bai enpresa desagertu delako edo baita zeharka kutsatu zirelako ere.

Berrikitan Espainiako Auzitegi Gorenak sententzia esanguratsua eman du Uralitaren kontra, Kataluniako Cerdanyola herrian fabrikaren inguruko auzotarrak kutsatzeagatik. Col-lectiu abokatu elkarrekin urteak zeramatzen frogatu nahian fabrikak ez zituela soilik bertako beharginak eta haien senideak kutsatu, baita inguruan bizi zirenak ere. Epaiak amianto konpainia zigortu du bi milioi euro ordaintzera 39 laguni.

Baina Cerdanyolaz gain, badira beste toki batzuk amiantoaren historia iluna harlauza batekin estalita dutenak. Euskal Herrian esaterako, Altxa erdi-erdian –orain kiroldegi bat dagoen lekuan– jardun zuen frankismo betean Fibrocementos Vascos S.L. lantegiak; makina bat buruhauste eta kezka sortu du iragan industrial hori berreskuratzeak. Barakaldoko Retuerto auzoan, bestalde, Montero Fibras y Elastomeros enpresaren lantegia zegoen, 50, 60 eta 70eko hamarkadetan Espainiako Estatuko hamabost amianto inportatzaile handienetakoa zena. Orain saltoki handiak eta etxebizitzak baino ez daude bertan, baina harlauza altxatuz gero ez da zaila minbiziaren mamua ikusi eta ahaztuen garrasia entzutea, egia eta justizia eske. ■

Jesus Uzkudun: “Enpresek heriotza zigorra ezarri zuten”

CCOO sindikatuaren EAEko lan osasun eta ingurumeneko arduradun izana, Orbegozon izan zuen lehen harremana amiantoarekin eta haren kontrako borrokan erreferentzia da Euskal Herrian Jesus Uzkudun (Hernani, 1949). Orain, erretiroa hartuta, Asviemie amiantoaren biktimen euskal elkarteko bozeramaile dihardu.

Noiz hasi zinen jabetzen amiantoaren gaiaren garrantziaz?

1981ean zerbait irakurtzen hasi nintzenean nire buruari esaten nion amiantoa uralitaren industrian eta ontzioletan soilik zegoela. Eta 1990ean oraindik zuri ateratzen nintzen Hernaniko Orbegozotik balaztetako zapatak konpontzen. 1997an eramán genuen lehenengo epaiketa CCOOtik. Gasteizko Garaje Modernoko mekaniko bat zen, Santiago Busto, amiantoaren biktimen elkarteko egungo abokatuaren aita: peritoneoko mesotelio-maz hil zen. Ordurako dokumentazio asko zegoen, baina ze kuriosoa... juezak eta Osalanek esan zuten Garaje Modernon ez zegoela amiantorik. Nola ezetz? 40 urte zeramatzaten balaztetako amiantoa haizearekin garbitzen eta! Hori izan zen hasiera. Urte horietan amets egiten nuen Orbegozoko zubian nindoala, neroni ere gaixo.

Zu ere gaixotu zaitezke... nola eragiten du horrek daramazun borrokan?

Amets hori... Aurreko astean nirekin lan egindako baten epaiketa izan dugu, sententziaren zain gaude. Auzi bat irabaztean halako poza eta mala

letxea sentitzen dut. Sindikatuan goi mailako ardurak hartu nituenean, gogoratzen dut Osalaneko kontseiluko kide batek 2001. urte inguruan esan zidala: “Jexux, alarma soziala ari zara sortzen”, eta nik: “Jendea ez da nirekin gaixotzen, gaixotuta etortzen da”. Gauzak oso ezberdin ikusten dira amiantoa zuk jan duzunean, borroka pertsonala ere bada.

Hasierak gogorak izango ziren...

Jendearekin eztabaida asko izaten nuen eta urte batzuen ondoren konturatu nintzen ez duela merezi, hildakoak eta gaixoak jarri behar direla mahai gainean. Batek osasuna galtzen zuenean, lehen esaten zen “jainkoak nahiko zuen...” eta orain aldiz “zorte txarra” omen da. Baina hara... minbizia dutenen artean gaizki pentsatzen hasi eta asmatu egiten dut.

Babes gehiago sumatzen duzu orain inguruan?

Aldaketa sumatu dut periodisten artean. Etengabe salatzeak erakutsi du arazo larri baten aurrean gaudela. Orain faltan botatzen dut gazte jendea, amiantoarena iruditzen baitzaio urrun dagoela.

Lan merkatuaren egoera ere ez da orain 40 urtekoa.

Gaur jarri dut Facebooken gorrieriari buruzko post bat: pertsona batek 2.400 euro kobratu ditut gorrieriagatik. Baina zenbat dira laneko zaratagatik entzumen galera dutenak? 100.000 akaso? Laneko gaitzak sekula baino gehiago daude eta



ezkutuan geratzen ari dira: istripu bat dagoenean kontzentrazioak egiten dira, baina egunero daude hildakoak laneko gaixotasunengatik eta sindikalgintzatik ezin gara geldirik egon.

Arazo estrukturala da?

Arazoa da atzeraka goazela. 60ko hamarkadan ez zen soilik iraultza kultural bat gertatu, lan munduan ere bai: “Robotaren moduan bizi naiz”, esaten zen, eta hori aldatu nahi izan zen. Baina pentsaera hori itzaltzen ari da. Gaur egun langileak zer esaten du? “Astelheanean lanera, ufl!...”, baina zer gutxi egiten dugun lanean gozatzeko, eta posible da lanari zentzu bat eman eta gustura aritzea, ez da diru kontua bakarrik.

Asviamie amiantoaren biktimen euskal elkartea sortu zenuten. Zein helburu ditu?

Asviamie Laudioko lagun batek sortu zuen, asbestosiak jota zegoen aitaren laneko gaixotasunaren aitortza lortzeko. Nik Bizkaian ezagutzen nituen hainbat lagun amiantoak kutsatuta eta hura aktibatzen lagundu nien. Zer helburuz? Biktimen aitortza, elkarri babesa ematea eta kontentsazio funtsa sortzea.

Epaitegietara jotzen duzue maiz. Zein dira emaitzak?

Esango nuke oso onak direla, orokorki, naiz eta epaile batzuen jarrera onartezina den; Donostiako Ricardo Bandrés nabarmenduko nuke. Ia astero badugu epaiketaren bat Donostian, Bilbon... Baina askotan enpresek helegitea jarri eta luzatu egiten dira auziak.

Amiantoaren biktimak biktima bikoitza direla diote.

“

Beharrezkoa da langileen ikuspuntu kolektiboa, zeren eta zuk besoko mina baduzu, zure besoko mina da, baina zure lankide guztiek min bera badute... Minbiziarekin hori egin daiteke”

Adibide bat: Zumaiako Xeyn jardundako bat amiantoagatik hil zen, kalte ordainak eskatzera joan eta azkenean Auzitegi Gorenean amaitu genuen. Hiru edo lau urteren ondoren, 180.000 euro ordaindu behar zuten. Xeyko zuzendaritza negarrez etorri zitzaigun dirurik ez zutela eta hartzekodunen konkurtsora zihoazela esanez. Akordio batera iritsi ginen ordaintzeko, baina hortik urtebetera kiebra jo zuen. Hor operazio bat egon zen enpresaren aldetik.

Inork esan dezake enpresen ekonomia kolokan jar-tzen ari zaretela salaketekin.

Amiantoarekin norbera ere kolokan dago edo zulora joan da, eta horretaz ez da hitz egiten. Noski kolokan jartzen dela, eta kasu batzuetan negoziatu egiten dugu, baina atzetik gehiago datozelako. Mina sortu ondoren ez baduzu kalte ordainik eskatzen prebentzioa garestia izan dai-teke, baina ordaindu behar baduzu merkea da. Horrelako animaliak gara. Niri esana didate: “Aizu Jexux, utzi horiei, hil dira edo gaixo daude eta jadanik ez dute bozkutzen”. Miserablea! Horiek erakutsi dizute non bukatuko duzun.

Osalanek eta Gizarte Segurantzak ez dituztela gai-xotasun guztiak aitortzen diozue. Zergatik?

Espainiako Osasun Ministerioak dio 2017an amiantoak eragindako minbiziagatik 34 lagun hil zirela Estatuan eta asbestosiagatik 53. Gezurra, gure eskuetatik gehiago pasa dira... Batetik,

Gizarte Segurantzak aitortzen dituenak ez dira estatistiketan agertzen. Eta bestetik, Osakidetza-ko medikuak behartuta daude susmoa izanez gero parte ematera, baina gehienek paso egiten dute. Osakidetzari 50.000 euro inguru kostatzen zaio minbizi bat, baina hori mutuek kudeatu beharko lukete.

Baina zergatik?

Ate birakariengatik. Nongoa da Darpon? [Jon, Eusko Jaurlaritzako osasun kontseilaria] Nondik etorri da eta nora joango da? IMQ enpresa talde-koa. Proiektu oso bat dago gauza publikoa zalan-tzan jarri eta jendea pribatura joateko. Eta mutuen lege berriarekin etorriko dena ikusiko duzu... Murrizketak omen daude dirurik ez dago-elako, baina hortxe dauka zuloa Osakidetzak.

Hala ere pausoak ematen ari dira arlo publikotik, konpentsazio funtsa hor dago. Zer ekarriko du? Nor izango da onuradun?

Ekarri? Ikusteko dago. PP abstenitu egin zen Espainiako Kongresuan, baina gobernuan dago eta tramite guztiak gelditu egin ditu. Onura nabarmena da hala ere: nik Orbegozon lan egin nuenez, esaterako, azkenean Industria Ministe-rioak ordaindu beharko luke nirea. Baina pentsa desagertu den fundizio txiki bat... zeini eskatu? Ezin da. Kasu horietan funtsak lagunduko luke. Edo pentsa senide bati gaitza agertzen zaiola buzoa garbitzeagatik...

Sektore ahulenak eta ertzean egon direnak lagun-duko lituzke orduan.

Hori da. Paco Puche eta ingurukoak kritiko dira funtsarekin, Espainiako Estatuan Uralita, Renfe edo ontziolak besterik ez zeudelako eta badagoelako nori heldu. Baina hemen Euskal Herrian, zenbat garaje edo tailer daude amiantoarekin ibi-litakoak? Eta emakumeak? Enpresari eska die-zaiokezu gehiago epaitegietara joaz, baina gutxieneko konpentsazioa bermatu behar da.

Kalte ordainez hitz egitean, minbiziak sortutako sufrimenduarekin eta menpekotasunarekin gogoratu beharko genuke ezta?

Horrekin bakarrik ez: enpresek ez zuten legea bete. Batzuek esaten dute 1984ra arte ez zegoela amiantoaren inguruko legerik Estatuan, baina 1940an jadanik esaten zen amianto hautsa zegoen tokian osasun zaintza egin behar zela; gero atera zen buzoak etxera ez eramateko araua, enpresak garbitu behar zituen; 1950eko lege batek zioen 18 urtetik beherakoek ezin zutela amiantoarekin lanik egin... Bazekiten! Enpresek ez zuten legerik bete eta heriotza zigorra ezarri zuten.

Turingo epaiketean ederki ikusi zen hori, bazekitela.

Gure helburua ez da alargunak aberastea. Auto batek harrapatzen zaituenean kalte ordainak egokitzen zaizkizu; irizpide bera da. Amiantoarekin ibilitakoen zerrendan dagoen jende batek, ezulka eta ezulka hasten denean beldurra sentitzen du. Batzuek ez dute egunkarietan albisterik irakurri ere egin nahi.

Oraindik ez diogu benetako neurria hartu arazoari? Genozidio hitza erabiliko zenuke?

Dudarik gabe.

Minbizia ugaritzen ari dela esaten dugunean, erluzionatzen dugu hori amiantoarekin?

Mesoteliomak badu abantaila bat, amiantoarekin bakarrik sortu daiteke. Gero birrikako minbizia aitortu zen, orain ari gara ademokartzinomarekin, laringe eta esofagoko minbiziak ere bai, eta Alemanian obario minbizia ere aitortu dute kasu batzuetan. Baina amianto eta beste kantzerijeno askorekin gabilta. Heldu behar diegu.

Arazoa betikoa da: kantzerijenoak, lantegiak, erraustegia, dena da baina ez da ezer.

1890ean 35 urteko langile bat joan zen medikua-

rengana arnastetuka eta ezulka. Eta esaten dio: tailerreko azkenekoa naiz, beste guztiak joan dira. Medikuek ezagun hori hasten da ikertzen eta hara, konturatzen da amiantoagatik dela. Horregatik da beharrezkoa langileen ikuspuntu kolektiboa, zeren eta zuk besoko mina baduzu, zure besoko mina da, baina zure lankide guztiek min bera badute... Minbiziarekin gauza bera egin daiteke.

Amiantoarekin lan egin zutenen Osakidetzako zerrendan 8.500 lagun daude, baina 25.000 lagun izatera irits daitezke. Nola kudeatzen da hori?

Nik ia egunero bakarren bat sartzen dut. Amiantoarekin jardun badira esaten diet “bizitza laborala” ekartzeko eta Osalanera eramaten dut. Hau poliziaren atestatua bezala da. Gaixotasuna sortzen da 30, 40 edo 50 urte geroago, enpresak desagertu dira, prozesu produktiboak aldatu... nola demostratu? Paper horrek balore handia dauka, aurreneko pausoa da eta hori ez bada... 25.000 sartu arte ez dut deskantsatuko.

Amiantoaren erruz erabili zen eta oraindik ere hor dago. Ez da iraganeko arrisku bat ezta?

Kazetari askori esan diot, jarri kamara ezkutu bat eta amiantoaren erostera joango gara. Europako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak amantoa “erradikatzeko” dekretua onartu du. Hona izugarrizko tona pila ekarri zuten, non dago hori guztia? Altzako zabortegean, Hernaniko erriberran... Adibidez Altzako auzo elkartearen borroka dugu erakusgarri: batzuek lortu dute eskola aldameneko parkean jolasten ibili izanagatik erregistratzea. Jendea ari da bueltak ematen.

Desamiantatua egiteko prozedurez zer iritzi duzu?

Eusko Legebiltzarrak bi aldiz onartu du inbentarioa egitea, nik proposatuta. Erradikatzeko beste gauza bat da –Polonian orain jarri dute aurrekontua horretarako–, baina inbentarioa... Inork ez du egin, udaletxe batzuk kenduta. Aurrerapausoak oso mantso ematen ari dira eta amianto asko dago, hor jarraitzen du. ■

Asbestoa *ad infinitum*

Suitzan bizi den Maria Roselli kazetari italiarraren “Asbestoaren gezurra” liburua 2007an argitaratu zen lehen aldiz alemanez, ondoren gazteleraz, ingelesez... Arrakasta itzela izan du, amiantoaren biktimen erretrato zehatza emateaz gain, lehengo eta oraingo asbestoaren industriaren interesak oso ondo deskribatzen dituelako. Segidako testuan, liburuaren epilogoaren laburpena duzue.

Tamalez, asbestoa ez da kuriositate historiko bat. Inork egiatan pentsa zezakeen herrialde industrializatuetako biktimen kopuru ikaragarria nahikoa litzatekeela zuntz hilgarria komertzio globaletik ateratzeko. Baina guztiz kontrakoa da. (...) Amiantoaren kontsumoa esponentzialki handitu da garapen bidean dauden herrialde askotan. Nolabaiteko lehiaketa dago Mendebaldeko herrialdeetako debekuaren aurrean abantaila lortzeko. Baina kostuaren ondorio ere bada: asbestoa bere ordezkioak baino askoz merkeagoa da! (...)

Osasunaren Mundu Erakundeko (OME) kide diren herrialdeen %73an asbestoa prozesatzea eta erauztea oraindik baimenduta dago eta %36an oraindik oso aktibo. OMEren arabera 125 milioi pertsona daude mundu osoan amiantoaren eraginpean euren lanpostuetan. Ordaindu beharreko giza prezioa izugarria da. (...)

Herrialdeotako asbestoaren tragediaren errua ez da soilik eskrupulorik gabeko enpresena –itxurak egiten zituzten segurua zela esanez, baina inork baino hobe zekiten ez zela horrela–, baita nazioarteko erakunde handiena ere. Amiantoaren konpainia multinazionalen propagandak itsututa daude erakundeok, zenbait herrialdek lehen debekua ezarri eta urte mordo bat geroago ere. Asbestoaren lobbyak trikimailu zaharrak erabiltzen segitzen du garapen bidean dauden herrialdeetan, irtenbide bat bilatzeko prozesu politikoan eragite-

ko: oraindik badaude ikerketa “zientifikoak” diotenak krisotiloa (amianto zuria) ez dela kaltegarria.

Hala, oraindik posible da gobernu batek “erabileraren kontrolatuaren” gezurra irenstea, eta konpainia suitzarrek bere garaian zabaldu zuten amianto ustez seguruaren ipuinak hedatzen jarraitzen du burugogor. (...)

Asbesto zementuaren langileen tokiko “sindikatuak” paper ulergaitz eta zalantzarazkoa jokatzen ari dira tragedia honen hurrengo atalean. Adibide bat: OMEk eta Lanaren Nazioarteko Erakundeak 2006an amianto debekatzeko kanpainari babes eman ziotenean, Errusia, Errusia txuria, Azerbaijan, Kazakhstan, Kirgizistan, Ukraina eta Tajikistango amianto zementuaren sindikatuek Krisotiloaren Sindikatuen Aliantza izeneko erakunde-aterkia sortu zuten, antza, fibrozementuaren konpainiak “zientifikoki gezurra diren erasotatik” babesteko eta etor zitezkeen debekuak bertan behera uzteko. (...)

MUKIZAPIAK ASBESTOAGATIK BABESTEKO

Laneko osasun onena duten herrialde industrialetan “erabileraren kontrolaturako” neurriak ez badira egingarriak, nola funtzionatuko dute substantzientzako mugarik ez dagoen beste herrialdeetan? (...)



Indian amiantoz egindako teilatua jartzen 2011n. Everest Asbestos Cement irakur daiteke teilen itsasgarrietan, egun abestoarekin lan egiten duen enpresa ugarietako bat.

Gaur egun asiar herrialde gehienetan jendea asbestoa prozesatzen ari da inolako babesik gabe: Txinan, etxean lan egiten dutenek –normalean nekazariak eta haien emazteak– euren egongelan sailkatzen dituzte amianto zuntzak eta ondoren fabrikara bueltatzen dituzte han prozesatzeko. Indiako fabriketako langileek asbesto zakuak labanaz moztu eta eskuz irekitzen dituzte, gero zuntz konpaktatua egurrezko mailu batekin hausten dute zementuarekin nahastu aurretik. (...) Ehunka mila ari dira lanean, ahoa mukizapiekkin soilik estalita dutela.

ROTTERDAMEKO HITZARMENAREN ESPERANTZA

Zer egin daiteke amiantoaren erokeria gelditzeko garapen bidean dauden herrialdeetan? Amianto-

aren kontrako aitzindari eta urte askoz Asbestoa Debekatzeko Nazioarteko Idazkaritzako koordinatzaile izan den Laurie Kazan-Allenek uste du pauso garrantzitsu bat izango litzatekeela krisotiloa 1998an onartutako Rotterdamgo Hitzarmenaren sartzea. (...)

Baina hitzarmenaren arabera garapen bidean dauden herrialdeek blokeatu dezakete modu seguruan erabili ezin dituzten produktuen inportazioa (...) eta asbestoaren gezurrak bizitzari helitzen dio egoskor, en aeternum, suntsiezin eta betiereko.

[2017an seigarrenez ukatu zuten krisotiloa edo amianto zuria Rotterdamgo Hitzarmenaren gai kutsagarrien debeku zerrendan sartzea, India, Errusia, Kazakhstan, Kirgizistan, Siria eta Zimbabweren eskariz]. ■



ARGIA

**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAIUENA**

Egin ARGIAkoa!
Eman eta jaso
nahi duzun neurrian
argia.eus/eginargiakoa

